

IRAKASKUNTZA PROFESIONALEKO ZENTROA
MUSIKA - ESKOLA



Bilboko Koral Elkarte
Sociedad Coral de Bilbao

Arauen Liburua

2019 / 2020

IKASTURTEA

Eskerrak eman nahi dizkizugu gure ikastetxea hautatuta agertu diguzun konfiantzagatik. Baliteke ikasturte honetan musikarekiko zure harremana hastera. Beste aukera bat ere bada: harreman hori sendotu nahi izatea, dagoeneko musikak guztiz harrapatuta zaudelako. Bada, zure egoera gorabehera, oso une atseginak dituzu zain, eta horietaz ahalik eta gehien gozatzea nahi dugu, gurekin batera.

Zer eskainiko dizugun gogoratu nahi dizugu:

Hainbat prestakuntza-ibilbide ditugu, guztiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aitortuak.

- Oinarrizko mailako eta maila profesionaleko irakaskuntza arautua.
- Musika-eskola: Hastapen-mailatik (3 urtetik aurrera) adin-mugarik gabeko helduentzako eskaintzara. Instrumentu-espezialitateak, talde-praktikak eta zenbait ikasgai osagarri egin ahal izango dituzu.

Garrantzitsua da zure interesekin ondoen bat egiten duena hautatzea. Horretarako, argi izan behar dituzu aukera bakoitzaren ezaugarriak, bai eta ondorio akademikoak ere. Galdetu zalantza oro, eta, beharrezkotzat jotzen baduzu, eskatu hitzordua ikastetxeko zuzendaritzarekin biltzeko. Hemen gauzak ahalik eta ondoen hautatzen laguntzeko.

Zure erabakia edozein izanik ere, kalitatezko irakaskuntza eta banakako jarraipena eskainiko dizkizugu. Irakasle-taldeak ahaleginak eta bi egingo ditu ikasle bakoitzak bere onena eman dezan, eta, horretarako, ikasle ororen izaera aintzat hartuko dute. Horrek familiekiko etengabeko komunikazioa dakar berarekin: irakasleak zurekin jarriko dira harremanetan, baina edozein unetan eskatu ahal izango duzu bilera bat ikastetxeko idazkaritzaren bitartez.

Musika maite eta “bizi” dezazun nahi dugu, eta zuk dagoeneko egin duzu aurreneko urratsa. Ziur gaude badakizula zein onura emozional eta intelektual ekar diezazkizukeen musikak. Horrez gain, esperientzia atseginak pilatuko dituzu zure aisialdi-uneetan, bizitza osoan.

Ikastetxeko musika-ingurunean murgiltzea proposatu nahi dizugu: batzuetan, oholta gainean; beste batzuetan, ikusle -entzunaldietan, kontzertuetan, topaketetan eta abarretan-. Gure musika-jarduera guztiari buruzko informazioa bidaliko dizugu, guri laguntzeko eta zure familiarekin eta lagunekin gozatzeko abagunea izan dezazun.

Parte-hartze aktiboa da gure musika-hezkuntzaren ardatza, eta hori, batik bat, ikastetxeko ahots eta instrumentu-taldeen eskutik lortzen dugu. Ildo horretatik, talderik egokiena hautatuko dugu ikasle bakoitzarentzat, haren egoera osoa kontuan hartuta.

Gure lana behar bezala gara dezagun, hauxe eskatu nahi dizugu:

Joan eskoletara, eta egin lan etxean. Horrela, etekinik handiena aterako diezu banakako eskolei, eta, era berean, ez duzu taldekakoen aurrerapena atzeratuko. Gainera, emaitzak eta hobekuntzak antzemango dituzu, eta gero eta gehiago motibatuko zaituzte.

Ardura eta konpromisoa: joan zure taldearen entsegu eta kontzertuetara. Zure koruak, orkestrak edo bandak beharrezkoa zaitu, talde bat osatzen baituzue.

Ezustekoren baten ondorioz baja eman behar baduzu, jakinarazi 2 hil lehenago.

Guztiok ariko gara elkarlanean begirune-giroari eusteko.

Ikastaro oso bat dugu aurretik bizipenak partekatzeko eta musikan, hain gustukoa dugun honetan, jarduteko.

MATRIKULA EGITEKO ETA ORDUTEGIA AUKERATZEKO PROZEDURA:

8 urtera bitarteko ikasleak (Tailerra)

1. Matrikulatzeko epeak eta ordutegiak

Ekainaren 3tik 7ra, 10:00 - 12:30 eta 15:30 - 19:00

2. Ordutegi-hautaketa (Tailerra):

Ikasleari dagokion **maila, modulua eta ordutegia** izena emateko orriarekin bidaliko da. Ordutegia aldatu nahi duten familiek idazkaritzan jakinarazi beharko dute, matrikula egiteko epean.

3. Ordutegi-hautaketa (Instrumentu-hastapena)

Irailaren 17tik aurrera.

- Ordutegia aukeratzeko lehenengoak aurreko ikasturtean instrumentu-hastapena egindako ikasleak izango dira.
- Ondoren, instrumentu-hastapena aurrenekoz egin nahi dutenak.
- Kasu bietan, ordena tailer-mailaren arabera izango da; handienetik hasita (II. maila, I. maila 3. modulua, I. maila 2. modulua), maila bakoitzaren barruan ikasleen abizenen ordena alfabetikoa jarraituko da, zozketan ateratzen den hizkiaren arabera.
- Gogoratu nahi dizuegu instrumentu-hastapena egiteko eskaera egin izanak ez duela lekua izatea bermatzen.

IZENA EMATEKO TASAK

Musika hastapena 53,00 €

Musika-tresnen hastapena 43,00 €

8 urtetik gorako ikasleak (Irakaskuntza Arautua eta Ez Arautua)

Ordutegiak haututako dira ikasleen abizenen ordena alfabetikoaren arabera, aurretik zozketa eginga.

1. Matrikulatzeko epeak

Ekainaren 10etik 14ra, 10:00 - 12:30 eta 15:30 - 19:00

Inskripzio orria aipatu epean aurkeztu ezean, abizenari dagokion ordena-zenbakia galdu egingo da.

2. Ordutegi-hautaketa

- Ekainaren 19tik aurrera, ordutegiak hautatzeko ordena-zenbakia zentrorra deituta jakin ahal izango da, edo idazkaritzan edo webgunean.
- Ordutegiak hautatzeko epea **irailaren 2an** hasiko da. Lehenengo, profesionalako 5. eta 6. mailako ikasleek egingo dute, eta ondoren gainerakoek, esleituriko zenbakiak ezarritako ordenaren arabera.
- **Helduek** irailaren 24tik aurrera aukeratuko dute ordutegia.

IZENA EMATEKO TASAK

Oinarrizko maila 75,00 €

Irakaskuntzak Profesionalak 80,00 €

Musika eskola (espezialitate bakoitzeko) 65,00 €

Ikasle berrien onarpena: ekainaren 12tik aurrera.

1) Inskripzioa betetzeko honakoa ekarri beharko da:

- **Inskripzio orria** behar bezala beteta.
- Zure bankuko datuetan aldaketarik egon bada, **baku-kontuaren zenbakiaren fotokopia**.
- Zure NAN zenbakia ematen dugun Inskripzioaren orrian agertzen ez bada, **NANaren fotokopia**.
- **Kide Ugariko Familiakoak** direla egiaztatzen duten ikasleek matrikula-salneurrian hobaria edukiko dute.
- **Ikasle berriek** Ikasketa-Espedientea ekarri beharko dute beste zentro batetik badatoz.

2) Inskripzioaren tasa, ikasturteko materiala eta eskola-asegurua barne, hurrengo kontuan ordaindu beharko da. Aurkeztu ordainketa-frogagiria dagokion inskripzio orriarekin.

ES86 2095 0360 1038 0007 2443 (BBK)

**2019 / 2020 IKASTURTEAREN HASIERA:
Irailaren 9an**

(Musika-tresnen hastapenak eta helduen ikasketak irailaren 30ean hasiko dira)

ARAU OROKORRAK

- 1) Bilboko Koral Elkarteko ikasleek **bazkideak**, bazkideen lehen mailako senideak edo koraleko taldekide eginkorrek izan behar dute.
- 2) Eskolaratzeagatiko zenbateko guztiek bankuan helbideraturik egon beharko dute. **Agiriak itzultzeagatiko gastuak ordainketan gehituko dira**.
- 3) Edozein ikasgaitan baja hartzeko berori idatziz jakinazari beharko da idazkaritzan, berori gertatu baino **bi hilabete lehenago**.
- 4) Ikasturtean **eskolaratzeagatiko zenbatekoen 10 hilabeteko** oso helaraziko dira (9 helduen kasuan).

- 5) Zentroak beretzat gordetzen du ikasle berriei **onarpen frogak** egiteko eskubidea.
- 6) **Ikasle guztiek** derrigor hartu behar dute parte entzunaldietan, jarduera osagarrietan eta taldekako musika praktketan, hauek Ikastegiak egoki deritzon orkestra edota abesbatza taldean burutuko dira. Entsegu eta kontzertuetara jarraikortasunez agertzea ezinbestekoa izango da ikasturtea gainditzeko.
- 7) **Irakaskuntza araupetutik araupetu gabekora aldaltzeak** araupetutakoaren matrikula-jarraikortasuna galtzea dakar.

DATUEN BABESA

Abenduaren 13ko Norberaren Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu formulario hau bete ondoren lortutako datuak BILBOKO KORAL ELKARTEAREN fitxategi batean gordeko direla, ikastegiko antolaketa eta kudeaketa erraztearren. Aipatu datuak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren esku jarriko dira legezko ondorioetarako.

BILBOKO KORAL ELKARTEAK Ikastegiko ikasleak agertu edota jarduten direneko irudi edota soinu-artxiboak sortu ahal izango ditu, beti ere hauek ikasketei lotutako ekitaldiei badagozkie. Norberaren irudirako eskubidea Konstituzioaren 18. artikuluan eta ohore, intimitate pertsonal eta familiar eta norberaren irudirako eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Legean nahiz Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean jasota dago.

Datuei buruzko atzipen, zuzenketa, deuseztapen eta aurkaritza eskubideak baliatzeko, idatziz helbide honetara jo beharko duzu: BILBOKO KORAL ELKARTEA, Felipe Serrate 2, 48013 Bilbo.

Inskripzio orria sinatzean berariaz baimena ematen duzu zeure datu pertsonalak, irudi edo soinu-artxiboak aurreko lerroaldeetan jakinarazitakoaren arabera erabiltzeko.

TALLER DE INICIACIÓN MUSICAL (3 a 7 años)
MUSIKA-HASTAPEN TAILERRA (3 urtetik 7 urtera)

NIVEL 0 (3 años)

ESCUELA DE MÚSICA

NIVEL 1 CONTACTO (de 4 a 6 años)

Módulo 1 Taller

Módulo 2 Taller + optativa iniciación instrumental

Módulo 3 Taller + optativa iniciación instrumental

NIVEL 2 INICIACIÓN (7 años)

Módulo de iniciación musical: Taller + coro + optativa iniciación instrumental

ESCUELA DE MÚSICA (a partir de 8 años sin límite de edad)
MUSIKA ESKOLA (8 urtetik aurrera adin mugarik gabe)

NIVEL 2 INICIACIÓN

6 módulos

Rama instrumental (instrumento + práctica de conjunto), rama canto coral, lenguaje musical.

NIVEL 3 AFIANZAMIENTO

6 módulos

Rama instrumental (instrumento + práctica de conjunto), rama canto coral, rama canto solista.

NIVEL 4 ACTIVIDAD PREFERENTE

Sin límite de módulos

Rama instrumental (instrumento + práctica de conjunto) y rama canto coral.

ADULTOS - HELDUAK

Siguen el plan de estudios de la Escuela de Música: niveles 2, 3 y 4. Además pueden elegir:

Asignaturas complementarias

- Musika Bizi
- Lenguaje musical
- Aula de cultura musical

**ENSEÑANZA REGLADA (a partir de 8 años)
IRAKASKUNTZA ARAUTUA (8 urtetik aurrera)**

GRADO ELEMENTAL – OINARRIZKO MAILA

1º y 2º

- Lenguaje musical + instrumento + coro

3º y 4º

- Lenguaje musical + instrumento + coro + práctica instrumental

GRADO PROFESIONAL – GRADU PROFESIONALA

1º y 2º

- Lenguaje musical + instrumento principal + instrumento complementario
- Banda, coro, orquesta, conjunto, repertorio con pianista acompañante (*)

3º y 4º

- Armonía + instrumento principal + instrumento complementario
- Conjunto, música de cámara, banda, orquesta, acompañamiento, repertorio con pianista acompañante (*)

5º y 6º

- Análisis + instrumento principal + historia de la música + música de cámara
- Orquesta, acompañamiento, repertorio con pianista acompañante(*)
- Optativas: repertorio de instrumento principal, técnicas de estudio

(*) En función del instrumento principal